

# Hostotxo txiki horia

Udazkenak ahazturiko azken hostoa  
Neguak eroan du, hostotxo txiki horia.  
Bere iparraize hotza bidaliz,  
nire masailak gorritu ditu neguak.  
Biluzik dago haretza, bere adarrak goibel;  
galdu du bere hostoa, hostotxo txiki horia.  
Bitxiloreak bezala erortzen dira elurmalutak,  
txuri utzi ditu zelai guztiak neguak.  
Elur txuri gainean geratu da  
leun-leunki hostoa, hostotxo txiki horia,  
eta beregan begiramena balu bezala,  
izotz izara bat bidali du neguak.  
Orduan igaro da txantxangorria  
eta ikustean hostoa, hostotxo txiki horia,  
esan du: Ez egon goibel! Badator udaberria!